



**ERABAKIA, 2005EKO MAIATZAREN 16KOA, HEZKUNTZA,  
UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILEKO LANGILERIAREN  
KUDEAKETA ZUZENDARIARENA, 2005/2006 IKASTURTERAKO ORDAINDU  
GABEKO IKASKETA-BAIMENAK ARAUTZEN DITUENA**

---

Urriaren 1eko 228/2002 Dekretuak, Euskal Autonomi Elkarteko unibertsitateaz kanpoko irakasle publikoen lan-baldintzak araupetzen dituen Akordioa onartzen duenak, bere 52. Atalan, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, Langileriaren Kudeaketa Zuzendaritzaren bitartez, ikasketa-baimenak eman ahal izatea aurreikusten du, betetzen den lanpostuarekin edo funtzioekin zuzeneko loturarik ez duten jakintza-alorretan aritzeko. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Lan-Legepeko Irakasle eta Hezitzaileentzako Hitzarmen Kolektiboaren 31. atalak gauza bera esaten du.

Baimen hauen ezaugarri behinenak ondoko hauexek dira:

- Ikasturte osoa irauten dute:
- Ez dira luzagarriak.
- Ez dira ordaintzen.

Baimen hauek lortzeko betebeharrak hauek dira:

- Euskal Autonomi Elkarteko unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza publikoko karrerako funtzionarioa, egonkor den bitarteko langilea, egonkortasuna duten erlijio-irakasleek, edo mugagabeko lan kontratuduna izatea.
- Eskatzen duen funtzionarioak ordainsariei espreski uko egitea.

Baimena aldian ezin izango da hortik kanpoko beste inolako iharduera ordaindurik egin, baimenarekiko dedikazioa erabatekoa dela ulertzen baita. Ez da iharduera ordaindutzat hartzen, egiten ari den prestakuntzatik datorren hura.

Hau bezalako gaiak araupetzerakoan, hots, ikasketa-baimenak direla medio, halako egoeran ematen den denboraren kotizazioa arautzerakoan, kontuan izan behar da funtzionario lizentziatua Gizarte Segurantzaren Erregimen Orokorren menpe edota MUFACE eta Eskubide Pasiboetan kotizatzen ote duen.

Lehen suposamenduaren kasuan kontuan izan behar da 1992ko urriaren 27ko Aginduak ezarritakoa (1992ko azaroaren 5eko E.A.O.), soldatarik gabeko lizentzi edo baimena-egoeretan Gizarte Segurantzaren Erregimen Orokorren eraginpean dauden funtzionario publikoek erregimen horri kotizatu beharrezkoari buruzko jarraibidea alegia. Aipatu Aginduaren 2. atalak dio ordaindu gabeko baimen edo lizentzien aldian — Estatuko funtzionario zibilen Legearen 41 eta 73 ataletan ezarri egiten baita berauek ez dutela zerbitzu aktiboko egoera aldatzen— ordainsariak ematen dizkion erakunde publikoak alta mantendu eta kotizatu beharra daukala. Hala ere, atal bereko bigarren lerroaldian esaten da administrazioak gertakizun arruntetatik sortutako kuota patronalari dagokion atala ordainduko duela soil-soilik, eta kotizatzeke oinarria, zerbitzugintzan jarraitu izanez gero legokiokeena izango dela.



Funtzionarioa MUFACeri atxikita badago, Administrazioak martxoaren 18ko 843/1976 Dekretuaren 18 atalak, Administrazio-Mutualismoaren Araubide Orokorra onartzeari buruzkoak dioena jarraitu beharko du. Bertan, kotizatzeke obligazioaren hasiera, iraupena eta iraungipenari dagokienez, 3.b.) azpiatalean ezartzen da funtzionario lizentziadunak kotizatzeke duen obligazioa ikasketa-lizentzien suposamenduan ere mantenduko dela. Era berean, Estatuko Administrazio Zibileko Funtzionarioen Eskubide Pasiboei buruzko Legearen testu bateratua onartzen duen apirilaren 21eko 1966/1120 Dekretuaren 20.2 eta 3. atalek funtzionarioei ere eskubide pasiboak kotizatzeke obligazioa ezartzen diete.

Ihardunbide hau antolatzeke asmoz eskariak aurkezteke epe bat finkatu da, eta berauei buruzko erabakiak ahalbidetuko du ikasturtearen hasieran langileriaren kudeaketa eragina duten gainerako ihardunbideekin batera aritzea. Horrela, deialdian aurkeztutako ikasketa baimenak lortu nahi dituztenek Lurralde Ordezkaritzetan Langileriaren Kudeaketa Zuzendariari zuzendutako eskabidea aurkeztu beharko dute, egin nahi duten ikasketa proiektuekin batera.

Emandako ikasketa-baimenei 2005ko ekainaren 23a baino lehen bakarrik uko egin ahal izango zaie.

Izangai batek IRALEko liberazioa eta ikasketa baimena lortzekotan, interesdunak aukeratu ahal izango du bere interesei komenigarrien gertatzen zaion aukera, kasu honi aurreko idazatian esandakoa aplikagarri gertatzen ez baita.

Langileriaren Kudeaketa Zuzendariak erabakia hartuko du.

Ikasketa baimenaren aldian, irakasle onuradunak Langileriaren Kudeaketa Zuzendaritzan honako agiriok aurkeztuko dituzte:

- 2005eko abenduan zehar: ordurarte egindako lanei buruzko txostena edo ikasketetak egiten ari den ikastetxean matrikulatuta egotearen egiaztatzea.
- Ikasketa baimenaren aldia amaitu eta hilabeteko epean (gehiago luzatuko ez dena), egindako ikasketen egiaztatzea edo ikerketa lanaren txosten orokorra.

Aurreko guztiak kontuan eta eman zaizkidan ahalmenez, hona

### ERABAKIA

**Lehena.-** Ordaindu gabeko ikasketa-baimenak ikasketa ofizialak edo ikerketa lanak egiteke ematea. Baimen hauek esleitzeko garaian kontuan izango dira hezkuntz plangintzarekin, eskatzaileak irakasten duen espezialitatearekin, bere kidegoarekin edota egin nahi dituen ikasketen edukiarekin zerikusia duten alderdiak.

**Bigarrena.-** Ordaindu gabeko ikasketa baimenak eskatzeko epea 2005eko maiatzaren 17an hasten da eta urte bereko maiatzaren 31an amaitu.

### ERREKURTSOAK



Urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatu duen Herri Administrazioaren Araubidearen eta Guztientzako Ihardunbideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 legearen 114 eta hurrengo atalak, 107.1 atalarekin bat, xedatutakoari jarraituz, erabaki honen aurka altxada errekurtsua aurkeztu ahal izango da, Hezkuntza Sailburuordearen aurrean, hilabeteko epean, argitarapenaren biharamunetik kontatzen hasita.

Vitoria-Gasteizen, 2005eko maiatzaren 16an.

Itziar Garaizar Agirre  
LANGILERIAREN KUDEAKETA ZUZENDARIA